



Diru-laguntzak arautzeko ordenantza idatzi AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA bideratzeko iragarkia

39/2015 Legeak –urriaren 1ekoak, Administrazioen Publikoen Prozedura Erkideari buruzkoak– berrikuntzak ezarri ditu Administrazio publikoen legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiterakoan; besteak beste, herritarren iritzia eta etorkizuneko arauak ustez ukitu ahal dituen antolakunde ordezkagarrienen iritzia jasotzeko beharra.

39/2015 Legeak –urriaren 1ekoak, Administrazioen Publikoen Prozedura Erkideari buruzkoak– bere 133 artikuluan hau xedatzen du:

“1.- Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*
- b) Arau hori onestea, beharrezko eta egoki den.*
- c) Arauaren helburuak.*
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.”*

Oiartzungo Udalaren asmoa da, indarrean dagoen legediarekin bat etorritik, Oiartzungo Udalak ematen dituen diru-laguntzak arautzeko ordenantza orokorra onartzea.

39/2015 Legeak ezartzen duen prozedura betetzeko, Oiartzungo Udalak erabaki du, diru-laguntzak arautzeko ordenantza onartu aurretik, aurretiazko kontsulta publikoa burutzea.

Beraz, herritarrek, erakundeek eta elkarteek hala iritzi gero, parte hartu ahal izango dute ekarpenak aurkeztuz **2018ko irailaren 10a arte**, bi bide hauen bidez:

- Posta elektronikoaren postontzi honen bidez: ekarpenak@oiartzun.eus .
- Udalaren Erregistro orokorrean aurkeztutako iradokizunen bidez (Doneztebe plaza, 1).

EKIMENAREN BITARTEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK

Gaur egun ez dago zehaztasunez arautua Oiartzungo Udalak ematen dituen diru-laguntzak nola eta zein baldintzatan eman behar diren. Sail bakoitzak bere prozedura propioa du, honek kudeaketan eta herritarrekin harremanetan sortzen dituen zailtasunekin.

ORDENANTZA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA

Ordenantza azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), eta horren garapenerako Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua) betetzeko egiten da.

ORDENANTZAREN HELBURUAK

Ordenantza honen helburua da Oiartzungo Udalean diru-laguntzak emateko prozedura definitzea, azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak eta honen



Erregelamenduak ezartzen dituen baldintzak betez. Besteak beste, ordenantza honen helburuak dira:

- Diru-laguntzen izaera, onuradunak eta onuradunen betebeharrak zehaztea.
- Diru-laguntzak emateko eta kudeatzeko prozedurak zehaztea.
- Diru-laguntzak ordaintzeko, justifikatzeko eta itzultzeko prozedurak zehaztea.

IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ-ERREGULATZAILEAK

Udal diru-laguntzak arautzeari dagokionean, udalek azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak eta honen Erregelamenduak diotena jarraitu behar dute.

Lege honen 17. artikulua zehazten duen moduan:

“2. Las bases reguladoras de las subvenciones de las corporaciones locales se deberán aprobar en el marco de las bases de ejecución del presupuesto, a través de una ordenanza general de subvenciones o mediante una ordenanza específica para las distintas modalidades de subvenciones.”